



2025SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2025/02/27

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2025/02
EGUNA: 2025/02/27
HASIERA ORDUA: 19:00
AMAIERA ORDUA: 20:00
TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.
Monica de Prado Paniagua.
Jon Riaño Ojanguren.
Anton Garay Berezibar.
Ainhoa Urbietta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.
Itziar Irizar Beristain.
Antxoka Elorza Altuna.
Aritz Larrañaga Unanue. (Telematikoki)
Edurne Aristi Careaga.
Jon Ander Urain de Jesus. (Gai zerrendaren 3. puntutik aurrera)

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurari dagokion aktaren zirriborroa onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2025eko urtarrilaren 30ean eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen zerbait esateko aktaren harira, eta Gilen Garciak azaldu zuen gai zerrendako 5. puntuan, partaidetzazko aurrekontuetarako konpromiso politikoari dagokiona, dokumentua irakurri aurretik Alkateak aipatu zuela dokumentuaren 5. puntuan e) eta f) puntuak, modu desberdinean idatzita bazeuden ere, gauza bera jasotzen zutela eta f) puntua kendu behar zela, baina aktan bi puntu horiek jasotzen direla jatorrizko bertsioan jasota zeuden bezala.

Bestalde, urtarrileko Osoko Bilkuraren bileran, aurreko bileraren akta onartzeko puntuan Gilen Garciak Foru Funtsari dagokion zenbatekoaren harira planteatu zuen zalantzaren harira, Alkateak adierazi zuen, aipatu ziren 5.401.649 euro horiek transferentzia arruntei dagokien zenbatekoa zirela, eta horietatik, 4.879.233 euro Foru Funtsari zegozkiela eta gainontzekoak beste sarrera batzuen bitartez lortuko zirela.

Aipatutako bi puntu horiek argitu ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2025eko urtarrilaren 3ean egindako Osoko Bilkuraren bileraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garciak, 69/2025 Dekretuaren harira «Abokatu eta prokuradorea izendatzea 439/2022 prozedura laburturako: Bordatxo» azaldu zuen Dekretuen zerrendan 439/2022 prozedura laburtua aipatzen dela, baina Dekretua bera irakurrita, han 391/2024 prozedura arrunta aipatzen dela. Halaber azaldu zuen bere ustez 2024ko prozedura arrunta izango zela zuzena, azken finean, gai hori urte bukaeran sorturako zerbait izan zelako. Hori azalduta, galdetu zuen ea ezarrita ote zegoen epaiketaren data.

Halaber azaldu zuen Itziarko Kanala jatetxearen auzian epaia Udalaren alde izan zela, eta galdetu zuen ea nola ote zegoen gai hori.

Alkateak erantzun zion Bordatxoren auzian oraindik ez zutela jakinarazi inolako datarik, eta Kanalaren auzian, itxitura kentzeko agindua eman zela, eta begiratuko zutela gaia nola ote zegoen.

Ez zen egon galderarik edo iradokizunik gehiago, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

3.- Jon Ander Urain EH Bildu udal taldeko zinegotziaren kargu hartzea.

Alkateak azaldu zuen, Hauteskunde Batzorde Zentralak Jon Ander Urain de Jesusen zinegotziaren kredentziala igorri ondoren, eta behin aurkeztuta dagozkion ondasun eta interesen- eta bateraezintasun- aitortenak, bidezkoa zela Udalbatzako kide berriak karguaz jabetzea.

Jon Ander Urainek legez ezarritako promesa egin zuen, legeak hala behartuta egiten zuela zehaztuz.



2025SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2025/02/27

Ezarritako izapideak bete ondoren, Jon Ander Urain de Jesus Debako Udaleko zinegotzi karguaz jabetu zen, eta EH Bildu udal taldera atxikita geratu zen.

4.- Onartzea, hala badagokio, Debegesa eta Debako Udalaren arteko lankidetzahitzarmenaren 2. gehigarria, Debako udalerrian «Pasealeku Estalia balioan jartzea tokiko produktu-merkatu gisa» proiektua gauzatzeko, Euskal Kostaldeko Unesco Geoparkearen helmugan jasangarritasun turistikoko planaren esparruan.

Alkateak azaldu zuen Next Funtsetako dirulaguntza hori DEBEGESAk kudeatzen ari dela, baina pasealeku estaliak dituen gabeziak dirulaguntza hori nahikoa ez zenez, Aldundiko Ondare zerbitzuari beste dirulaguntza bat eskatu zela, eta horren ondorioz 677.000 eurotik gorako gastua egin beharko dela dirulaguntza hori kobratu ahal izateko. Next Funtsetako dirulaguntza eta Aldunditik lortutakoa bateragarriak direla, baina, zenbateko horretara heltzeko paseo estalian egingo diren konponketa guztien fakturak Udalaren izenen egon beharko direla. Horrela, DEBEGESARI eskatu zitzaiola eurek kudeatu behar zuten diru partida hori Udalaren esku utz zezala, eta hori guztiari forma emate aldera prestatu zela onartzeko ekarritako hitzarmenaren gehigarria.

Deialdiarekin batera bidalitako dokumentutik bi kontu aldatu egin zirela: alde batetik, obra bukaera data, bidalitako dokumentuan 2025eko abenduaren 31 data aipatzen zela, baina luzapen bate egon dela, eta bukatzeko data 2026ko martxoaren 31 izango dela; eta, bestetik, 3. klausulan, Udalaren betebeharrei dagokiona, gehitu dela Udalak konpromisoa hartzen duela diru hori osorik gastatzeko, eta hala izango ez balitz, soberakinak DEBEGESARI bueltatzeko.

Gilen Garciak, dirua osorik gastatu ezean soberakina bueltatzeko konpromisoaren harira, galdetu zuen ea klausula hori egongo ez balitz egoera desberdina litzakeen, prozedura kontua zela, eta klausula egon ala ez diru gutxiago gastatuz gero, bueltatzeko beharra egongo litzatekeela. Alkateak erantzun zion hori berak esanda bezala zela, baina DEBEGESAK tematu zela klausula hori sartzeko.

Epea luzatzeari buruz, Gilen Garciak aipatu zuen hori bai iruditzen zitzaiola gehigarrian jasotzeko zerbait zela, edozein atzerapen baten aurrean, Udalak beste berme bat izango duelako. Eta obra gauzatzearen inguruan, gehigarrian jasotzen dela Udalak proiektua onartu eta obrak esleituko dituela, eta euren ustez, onartu aurretik batzordetik pasatu beharko duela, eta dokumentua bidali zela, baina iruditzen zaiela proiektuaren teknikari arduradunak gutxieneko azalpen batzuk eman beharko litzatekeela, benetan ezagutu dezaten egin nahi dena, hau da, zer den onartzen dena, horrela eskatu zutela Lurraldetasun batzordean, baina ez zekiela gobernu taldeak horretarako asmoa ote duen.

Alkateak erantzun zion ez zutela batzordetik pasatzeko asmorik, arkitekto aholkulariari

agindu zitzaiola proiektua onartu aurretik dagokion txostena egin zezan, eta bertan jasoko diren ondorioak nahikoa izango dela uste dutela, eta ez duela beste ezer beharko.

Gilen Garciak gehitu zuen batzorde informatiboak horretarako daudela, ez direla teknikariak, eta inoiz ez daudela soberan teknikarien azalpenak, juridikoak idazkaritzari, eta, kasu honetan, teknikoak arkitekto bati, eta garrantzitsua iruditzen zitzaiola Udalak egingo duen inbertsiorik handienetako baten inguruan, ezer erabaki aurretik ahalik eta informazio gehien edukitzea. Ez dela derrigorrezkoa batzordearen bilera formal egitea, lan-bilera baten egin datekeela.

Halako galderak Osoko Bilkuran egitera behartua dagoela, batzordetan egiten duen galderari erantzunik ematen ez zaielako, proiektuan eta obraren planteamenduan hainbat gabezia identifikatu zutela informazio teknikorik ez zutelako jaso, eta informazio hori ez emateko udal gobernuaren asmoa behin ezagututa larriagoa iruditzen zaiola. Adibidez, baimen sektorialak, ETS eta errepidekoen baimenak, batzordean aipatu zela baimen horiek bazeundela, baina eurek ez dituztela ikusi eta ez dituztela ezagutzen zer baldintzekin eman diren, eta aintzat hartuta baimen horiek obra baldintzatu dezaketela, eta, herritaren ordezkariak diren heinean, eskubide osoa dutela horiek ezagutzeko. Badaudela ere autobus eta taxiaren geltokia, zamalanerako gunea, zabor-ontziak, merkaturako postuak, eta abar; eta horiekin zer gertatu behar ote den jakiteko ere ezagutzeko eskubidea dutela. Eta horiek guztiak proiektua onartzea baino lehenago aztertu behar direla, zeren eta ezarritako baldintzak epeetan eta aurrekontuan eragina badute zer esateko eskubidea dutela, behin obrak hasita horiek gelditzeko eta atzerapenak izateko arriskua ekiditeko. Eta horiek guztiak arkitekto batek, edo beste teknikari batek, azaltzea ezinbestekoa jotzen dutela, eta azalpen horiek behin jasota, inork galdetzen badie ahalko diotela erantzun, baina azalpenik gabe ezin izango dutela ezer erantzun.

Alkateak erantzun zion bi gai desberdin nahasten ari zela, alde batetik, arkitekto aholkulariak proiektuaren inguruan eman beharreko azalpenak, eta azalpen horiek ez zekiela arkitekto aholkulariari edo proiektua idatzi duenari dagokion; eta, bestetik egin zituen galderari erantzuna Udalak eman beharko dituela, ez direla proiektuaren kontua.

Gilen Garciak galdetu zuen ea noiz izango dituzten erantzunak, behin proiektua onartuta eta aurrera egitea erabaki denean? Gerta daitekeen guztia aurreikustea ezinezkoa izango dela, baina bere ustez, aurreikusitakoaren inguruan, gutxienez, iritzia eskatzea izan beharko litzatekeela jarraitu beharreko gobernantza eredua. Erabakiak berandu hartzen badira, edo badira hartzen, sor daitezkeen arazoak gainkostuak ekar ditzakete, eta, horregatik, gero eta iritzi gehiago izan, orduan baino errazago ikus daitezke arazo horiek, eta egin daitezkeen ekarpenak aberasgarriagoak izango lirateke.

Alkateak erantzun zion gauzak nahasten ari zela. Puntu honetan DEBEGESArekin sinatu beharreko gehigarria aztertzen ari zirela, eta proiektua onartzeko momentua heltzen denean aztertuko direla beste gai horiek, naiz eta aipatu zituen askok proiektutik haratago egon. Proiektua onartzeak ez diolako inolako kalterik eragingo aipatutako gai horiei, proiektua baita eraikinak diruen gabezia horiek nola konponduko diren jasotzen duen dokumentu teknikoak.

Gilen Garciak adierazi zuen proiektua onartzen denean, proiektu horrek zer eragina izango duen ere aztertu behar dela, zeren, adibidez, ETSri edo errepideari dagozkionak, Geoparkeko



2025SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2025/02/27

hiru udalerriei eragiten dion proiektua izanda, DEBEGESAk ahalko ditu kudeatu, baina, autobus geralekuarekin edo zabor ontziekin gai horien kudeaketa nola egingo den Debako Udalari interesatzen zaio, herritarrei behar bezala komunikatzeko. Horregatik, pentsatzen zuela hori guztia proiektua onartzearekin batera aztertzea garrantzitsua dela, gehien bat, kontuan hartzen bada mugikortasun aldetik gune estrategiko dela eta lanak udaldian egingo direla, hau da, jende gehien ibiliko den unean. Horrela, proiektua onartzen bada hori guztia kontuan hartu behar dela, eta horren inguruan informatuta egotea baino ez zuela eskatzen, badagokio, ekarpenak egin ahal izateko. Hitzarmenaren gehigarriari dagokion gaia baliatzen zuela hori guztia azaltzeko zeren eta, batzordean ere komentatu zuela, baina ez zuela erantzunik jaso, eta bilera honetan galdetu ez balu, ez zukeela jakingo gobernu-taldeak batzordean aztertu gabe proiektua onartzeko asmoa zuela, horrela galdetu zuen nola bermatu ote daitekeen bere taldearen, eta herritar askoren izenean, eskatzen duen informazioa izango duela.

Eztabaida horen ondoren, bozketa egin zen, eta Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Debegesa eta Debako Udalaren arteko lankidetzaren 2. gehigarria, Debako udalerrian "Pasealeku Estalian balioan jartzea tokiko produktu-merkatu gisa" proiektua gauzatzeko, Euskal Kostaldeko Unesco Geoparkearen helmugan jasangarritasun turistikoko planaren esparruan.

5.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udaleko 1/2025 kreditu aldaketa.

Alkateak azaldu zuen Kontuhartzaitzak prestatutako Debako Udaleko 1/2025 kreditu aldaketaren proposamena, honako partidei eragin diena:

GASTUAK:		EBILITAKO BALIABIDEAK:	
<u>Partida</u>	<u>Zenbatekoa</u>	<u>Partida</u>	<u>Zenbatekoa</u>
Pasealeku estalia balioan jartzea	388.153,00	Kapital transferentziak. Debegesa. Paseo Estalia.	388.153,00
Arronamendiko lur eremuko obrak	7.590,00	Altxortegiko soberakina	72.405,00
N-634 errepideko baranda instalatzea	32.050,00		
Luzaro ikastetxeko argiteria	18.148,00		
Errotazarreko bideko argiteria	14.617,00		
GUZTIRA	460.558,00€	GUZTIRA	460.558,00€

Antolakuntza Batzordeak, 2025eko otsailaren 17an egindako ohiko bileran, Debako Udaleko 1/2025 kreditu aldaketa onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Bozketa egin ondoren, Udaltzako, aho batez, onartu zuen Debako Udaleko 1/2025 kreditu aldaketa.

6.- Onartzea, hala badagokio, Itziarko Auzo Udaleko 1/2025 kreditu aldaketa.

Itziarko Auzo Udalaren Juntak 2025eko otsailaren 13an eginiko bileran Auzo Udaleko 2025eko aurrekontuaren 1/2025 kreditu aldaketa onartu zuen. Hau da kreditu aldaketa horren laburpena:

GASTUAK:		EBILITAKO BALIABIDEAK:	
<u>Partida</u>	<u>Zenbatekoa</u>	<u>Partida</u>	<u>Zenbatekoa</u>
Andutz inguruan zuhaitz landaketa-itzulketa (Partida berria)	46.322,00€	Altxortegiko soberakina.	46.322,00 €
GUZTIRA	46.322,00€	GUZTIRA	46.322,00€

Itziarko Auzo Udalaren aurrekontua Debako aurrekontu kontsolidatuaren parteenez, Debako Udaleko Osoko Bilkurari ere dagokio kreditu aldaketa hori onartzea.

Bozketa egin ondoren, Udaltzako, aho batez, onartu zuen Itziarko Auzo Udaleko aurrekontuaren 1/2025 kreditu aldaketa.

7.- Martxoaren 8ko Adierazpen Instituzionala

Alkateak adierazpen instituzionalaren proposamena irakurri zuen:

«Martxoak 8, Debako Udalaren adierazpen instituzionala

Urtero bezala, aurten ere, Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna aldarrikatu nahi dugu Deban. Emakume guztien eskubideak aldarrikatzeko eguna da gaurkoa, baita gure jendartearen egoeraren inguruan hausnartzeko eguna ere. Azken urteetan feminismoaren balioek pertsonen eguneroko bizitzan botere eraldatzailea izan dute eta hori balioan jarri nahi dugu, izan ere, guztion ongizatean eragin zuzena du.

Berdintasun politikak ezinbestekoak dira jendarte berdinzaleagoa eraikitzeko. Horregatik, berdintasunean aurrera pausoak emateko helburuarekin, Debako Udalak hainbat ekimen jarri ditu abian azken urte honetan. Debako zaintza ekosistema horietako bat da, zeinaren bidez udalerriko adinekoen eta zaintzaileen beharrei eraginkortasunez erantzuneko sistema bat sortuko den. Gainera, aurten, Berdintasunerako I. Barne Plana burutuko du. Plan horren bitartez administrazioaren egituraren eta kudeaketaren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko neurriak zehaztuko dira, besteak beste. Aipatzekoa da, baita ere, Debako mugimendu feministak, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan, urte guzti hauetan egin duen lana.

Aurrerapauso handiak egin diren arren gure jendarte honetan oraindik ere desberdintasun handiak daude emakumeen eta gizonen artean eskubideak, boterea, baliabideak eta onurak lortzeko eta gauzatzeko orduan. Hori dela eta, Debako Udalak ondorengo konpromisoak hartuko ditu berdintasunarekiko duen ardura adierazteko:



2025SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2025/02/27

- *Herritarren artean indarkeria matxistari aurre egiteko programak garatzea.*
- *Tokiko arreta- eta koordinazio-protokoloak eguneratzea eta dauden protokoloen jarraipena egitea.*
- *Zaintzaren inguruko lanketa egiten jarraitzea Debako zaintza ekosistema sortzeko.*
- *Udaleko Berdintasunerako I Plana gauzatzea, zeinaren bidez Debako Udalean emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko den.*

Azkenik, jakinarazi nahi dugu Debako Udalak elkarretaratzea egingo duela martxoaren 8an eguerdiko 12:00etan. Halaber, debarrei dei egiten die martxoaren 8a dela-eta gure herrian antolatuko diren mobilizazio eta ekintzetan parte hartzeko.»

Gilen Garciak azaldu zuen eurek ekarpen batzuk egin zituztela, nolabait jaso zirela, baina testua pixka bat aldrebes gelditu zela, baina azken proposamenari aldeko botoa emango ziotela. Deigarria egiten zitzaizela Debako mugimendu feministak, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan egin duen lana aipatzea, eta haiekin ez hitz egitea Udalak berdintasunean eta politika feministan daraman jardunari buruz. Testuari dagokionez, paragrafo nagusian eta konpromisoen atalean jasotzen dena berdina zela, eta, euren ustez, hurrengo baterako udal gobernuari eskatzen ziotela gai horiek gehiago landu zitzaizkion.

Alkateak erantzun zion gai honek izan zuela bere lanketa. Batzordetik pasa zela, eta EH Bildu taldeak egin zituztela bere ekarpenak. Otsailaren 21ean talde politiko horren zinegotzi baten mezua jaso zela, non eskertzen zuen eginiko ekarpenak jaso izana, baina, osotasunean, lotura handirik gabeko testua zela iruditu zitzaizela, eta horren inguruan buelta bat ematea eskatzen zen. Horren ondorioz, aurkeztu den testua igorri zela, eta ez zela ezer jaso, eta Osoko Bilkuraren bilera egin arte ez zela inolako berririk izan, eta nahiko zukeela hori ere garbi gelditzea.

Gilen Garciak erantzun zion adierazpena Osoko Bilkurari aurkezteko ardurak alkateari zegokiola, eta alkateak erantzun zion desadostasunak dituenari zegokiola proposamenak egitea.

Gilen Garciak gehitu zuen, berak esan zuela testuarekin ados daudela, baina testua errepikakorra zela, eta udal gobernuak testua landu izanez gero, agian, gauzak beste modu batean jasoko zirela, eta, adibidez, paragrafo nagusian beste irakurketa bat jasoko zela. Eurek eginiko ekarpen ondoren, ikusita zer nolako testua proposatu zen, lotsagatik-edo, bere taldeko zinegotziak mezua bidali zuela testuari buelta bat ematea eskatuz. Errepikatzen zuela eurek ados zeudela, baina ikusten zela testua ez zegoela landuta, eta, adibidez, talde feministaren lana aipatzen dela, baina eragile horiekin hitz egin gabe. Horrela, galeriari begira, adierazpena aho batez onartuko zela, urtetako lana aitortuko zaiela, baina, aitortza hori egunerokoan elkarlanaren bitartez bideratu beharrean, ukatzen zaiela partehartzea, bilerak egitea eta abar. Hori zela ekarpena, eta ekarpenak egin zituzten bakarrak eurek izan

zirela.

Alkateak erantzun zion, hori horrela izan dela beti, udal gobernua proposamenak aurkezten ditu, eta oposizio talderi dagokio ekarpenak egitea. Hasieran aurkeztu zen testua Eudelek proposatutako testua izan zela, eta ez udal gobernuarena. Testu hori udal gehienetan onartuko zela, alderdi politiko guztien artean adostutakoa. Bere ustez onartzeko moduko testua zela, baina EH Bildu taldeak ekarpen batzuk egin zituela, eta ekarpen horiek sartu zirela, eta nola nahi ote duen udal gobernua proposamenak egitea hasierako testuarekin ados bazeuden. EH bilduk eginiko proposamenak sartu ondoren ados ez bazeuden euren zegoela aldaketak proposatzea.

Gilen Garciak adierazi zuen berak ez zuela inoiz esan ados ez zeudenik. Ekarpene batzuk egin zituela, eta bukaerako ekarpena izan zela udal gobernuari eskatzen dietela politika feministak egin nahi baditu, edo, behintzat, berdintasun alorrean, buelta eman diezaiola gai hori, edo landu ditzatela eduki horiek.

Alkateak erantzun zion horrek ez zuela zerikusirik onartzeko proposatu zen adierazpen instituzionalarekin, beste gai bat zela eta gauzak nahastea zela.

Gilen Garciak gehitu zuen, bere ustez ez zegoela nahasketarik, eta nahiko zukeela berak azaltzen dituen argudioei zabarkeria gabeko erantzunak ematea, berak esan ez zituen gauzak aipatuz. Testuan aipamen bat egiten zela, eta hor elkarlanik ez zela egon eta gai horiek lantzea egokia litzatekeela baino ez zuela adierazi. Naiz eta hasierako testua Eudelen EH Bilduren, Podemosen, EAJren eta PSEren babesarekin jaso, Debako Udalean lanketa berezi bat eginez gero, aberasgarriagoa izango zela. Eta euren lanketa hori egin nahi dutenez, egingo dutela, nahiz eta alkatearentzat deserosoa izan.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen «*Martxoak 8, Debako Udalaren adierazpen instituzionala.*»

8.- Eskari eta galderak.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen eskaera edo galderarik.

Gilen Garciak azaldu zuen bazituela hain bat gauza adierazteko:

8.1.. Lehenik eta behin, eskertu nahi zuela Ondargain kafetegia ustiatzeko pleguak bidali izana, eta prozedura arrunta bada ere, eskertu nahi zuela, eta bide batez, adierazi nahi zuela ados zeudela proposamenarekin.

8.2.- Debabarreneko ponentzia. Jakin izan zutela bilera egingo dela, eta jakin nahi zutela zertan den, zer gaiak landuko diren, eta abar.

Alkateak erantzun zion ez zuela horren inguruko inolako berririk. DEBEGESAko kontseiluan esan zela gonbidatua etorriko zirela proiektua daramatenak eta Foru Aldundiekin harremanetan jarri beharko zela bakoitzak zer ekarpena egin zezakeen ikusteko, baina, berak zekiela, Debabarreneko ponentziaren inguruan besterik ez zegoela.

8.3.- Amillagako jarduketa plana. Espedientea jasotzea behin baino gehiagotan eskatu zuela, eta jakin nahi zuela ea noiz jasoko duen erantzuna. Berari ez zaiola inporta espedientearen kopia bidali beharrean baimena ematen bada berak zuzenean espedientea daraman teknikariarekin egoteko eta espedientea ikusteko.



2025SPLE0002
2.bilera: OHIKOA 2025/02/27

Alkateak erantzun zion idazkariarekin kontsultatuko zuela eta erantzunen bat emango ziola.

8.4.- Debaberri aldizkaria. Lehenik eta behin, Aipatu zutela begi onez ikusten zutela aldizkaria atera izana eta herritarrak informatzea formatu horren bidez.

Azkeneko orrialdean aurrekontu partehartzaitako esku-orrian agertzen ziren akats berberak agertzen zirela, eta webgunean ere horrela zegoela jasota. Azkeneko Osoko Bilkuraren bileran arrazoa eman ziotela ez zegoela txukun azaldu zuenean, eta mesedez eskatzen zuela aldatu zezaten.

Alkateak erantzun zion, arrazoa zuela aitortzen zuela, baina ezin izan zutela aldatu inprentan zegoelako. Begiratuko zutela nola agertzen den web-orrian eta aldatzeko aukera izanez gero, aldatuko zutela.

Aleari dagokionez, bi kontu, komunikazioa enpresarekin partekatu beharko zirenak: lehena, aldizkariak, ataltxo batean jaso behar duela argitaratzailea nor den, kasu honetan Deba Udalak; nork egin duen, hau da, zer inprentatan egin den; eta lege gordailua. Eta zalantza bat sortu zaiola. Aldizkariaren izena ez da aldatu, baina 1 zenbakia jarri diotela. 1 zenbakia, 2012ko ekaineko alea izan zela. Ulertzen zuela, agintaldi berri bat izanez, bereizi nahi izatea, baina 2012tik onatzen lau agintaldi egon izan direla, eta gehiegizkoa iruditu zitzaizkion 1 zenbakia jartzea. Izena aldatuz gero, lege-gordailu berri bat eginez, zilegi izan zela 1 zenbakia jartzea, baina hori egin ezenez, argitaratu den alea 22. Izan beharko zela, eta erakundearekiko eta ordezkatzeko zuten herriarekiko errespetuz, gauza horiek zaindu behar zirela.

8.5.- Informazioari dagokionez, eta horrek kezka sortarazi ziola, pentsionisten mugimenduak kanpaina bat abiatu duela, eta jakin izan zuela, hilaren hasieran idatzi bat aurkeztu zutela erregistroan, eta galdetu ziotela horren inguruan, eta idatzian jasotzen dela mesedez, udal talde politiko guztiei helaraztea, eta euren ez dutela ezer jaso.

Alkateak erantzun zion euren ere ez dutela ezer jaso, eta ea al zuten noiz aurkeztu zuten.

Gilen Garciak erantzun zion ez zegoela ziur noiz aurkeztu zuten, hilaren hasieran izan omen zela, baina, berari kalean galdetu ziotela, eta adierazi nahi zuela Udal honek informazioa kudeatzeko moduari buelta bat eman behar zaiola. Bera lau urtez izan zela Udalaren arduradun nagusia eta hori ez zela inoiz gertatu. Errespeto falta iruditzen zitzaizkion, 5.500 pertsonen ordezkari zuten, eta ezinezkoa izan beharko zela, agintaldi berri hasi zenetik urte eta erdi pasa eta gero, kalean jasotzea idatzi bat aurkeztu izanaren berri. Erregistratzen diren horrelako kontu guztiak jakinarazi beharko zitzaizkion. Aurreko agintaldian hasi zirela egunero izandako sarreraren berri jasotzen zuten laburpena banatzen, eta gabezia horien aurrean eskatzen zuela banatzen den laburpen hori berari ere helaraztea. Bestela bere taldearekiko agrabio bat sortzen dela ezin izaten dutelako erantzun zuenik eman.

Alkateak errepikatu zuen euren ere ez zutela horren berririk. Aurkeztutako idatzien laburpena jabilatu zen harrerako langilea egiten zuela, eta gaur egun ez zela egiten. Berrito jarriko dutela martxan laburpen hori, eta ez izateko zalantzarik beste talde politikoei zerbait helaraztea

eskatu den guztietan horrela egin izan dela.

Gilen Garciak erantzun zion ez zela lehen aldia, beste batean ere eskatu behar izan zuela.

Alkateak esan zion helaraztea eskatu den guztietan helarazi izan dela, aipatu zuen idatzi horren berririk ez zuela, eta berehala galdetuko zuela ea zer gertatu den kasu honetan. Eta, Osoko Bilkuran aipatzeko aukerari kalterik egin gabe, aldez aurretik jakin izan bazuen berak ere ahal zuela zuzenean galdetu.

Gilen Garciak erantzun zion frogatu izan dutela lanerako eta adostasunetara heltzeko borondatea, eta ez dela ezer kostatzen informazioa partekatzea, eta gai horiek ez baditu Plenora ekartzen erantzunik gabe geratzen dela. Lurraldetasun Batzordean adierazi ziola ez zela gauza pertsonal bat, baizik berari dagokion zeregina, eta ez zituela gai horiek Osoko Bilkuran aipatuko dagokion informazioa jasoz gero, eta, bestalde, horrek euren arteko harremana hobetuko lukeela.

Alkateak erantzun zion, gai hori aurretik adierazi zizan zuela, Osoko Bilkuran esan arren, eta aipatzen zituen informazio falta hori, aurreko batean ere azaldu ziola hori ez zela egia, berarekin partekatu izan dutela izan duten informazio guztia, eta euren arteko harremana nekez hobetuko dela mesfidantza betetako harremana delako, eta mesfidantza dagoen bitartean ezin dela egon harreman sanorik.

Gilen Garciak galdetu zion ea ez ote den egia berak Amillagako espedientea hiru aldiz eskatu duela, eta hori aktatan jasota dagoela, eta Plenoaren aurrean, aktan jasota gera dadin, bere hitza ematen ziola hori guztia egia zela.

Alkateak erantzun zion, informazioa bai, baina ez zegoela ziur espedientea eskatu izan zuenik, eta behin baino gehiagotan aipatu diola teknikariengana jo dezakeela zuzenean lanketan dagoen espedienteak kontsultatzea. Bera alkatea zenean langile guztiei igorri ziela zirkular batean horrela jaso zela, eta hori bere horretan mantentzen zutela.

Amaitzeko, Alkateak gogorarazi zuen hurrengo Osoko Bilkuraren ohiko bilera martxoaren azken ostegunean, arratsaldeko zazpitan, izango dela.

Besterik ez zegoenez, 20:00tan alkateak amaitutzat eman zuen osoko bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

